

## Erreakzio kimikoak

### Zer gertatzen da erreakzio kimikoetan?

Erreakzio kimikoetan, hasierako substantzia bat edo gehiago konbinatzen dira ezaugarri ezberdinak dituzten beste substantzia batzuk emateko.

Hasierako substantziei **erreaktiboak** desitzen zaie eta erreakzioa eman ondoren sortzen direnak **produktuak** dira.


Erreakzio kimiko horiek deskribatzeko honelako espresio orokorra erabiltzen da:

### **Erreaktiboak -> Produktuak**

### Nola bilakatzen dira erreaktiboak produktuetan?


Has gaitzen erreakzio simple bat deskribatuz.

Eman dezagun ontzia hidrogeno eta iodo molekula diatomikoz beterik dugula (erreaktiboak). Iodo dagoenez, ontzi horren edukiak kolore morea hartuko du.



Ontziaren edukiaren kolore hori desagertuko da erreakzioa gertatu bezain laister, zeren iodo eta hidrogeno substantzien ordean beste substantzia bat agertuko da: hidrogeno ioduroa.

Zer gertatu da erreakzio honetan? Irudian ikus daitezenez, I-I eta H-H lotura kobalenteak apurtu egin dira eta H-I lotura kobalenteak agertu dira.




Zergatik apurtu dira H-H eta I-I lotura kobalenteak?

Molekulak ez daude geldirik; abiadura handiz higitzen dira. Momentu bat iritsiko da hidrogeno eta iodo molekulen artean talkaren bat emango dena.

Talka horretan parte hartzen duten molekulen energia zinetikoak handiak badira, lotura kobalenteak apur daitezke.

Aldi berean, lotura berriak sor daitezke, irudiak ikusten den bezala:



Hona hemen beti betetzen diren bi arau:

- lotura bat apurtzeko, beti energia behar da (molekulen energia zinetikoa)
- lotura berri bat sortzean, energia askatu egiten da (bero forman askotan).

### BIBLIOGRAFIA:

- "Introductory Chemistry. A Conceptual Focus". Steve Russo, Mike Silver. (Addison Wesley Longman)